

| Prestakuntza PLANAREN KUDEAKETA - Kanpoko enpresako irakasleen informazio-klausula | |
|---|--|
| DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO INFORMAZIOA | |
| Arduraduna | <p>Nor arduratuko da zure datuak tratatzeaz?</p> <p>EJIE SA IFK: A01022664 Posta-helbidea: Mediterraneoaren hiribidea 14, 01010 Vitoria-Gasteiz, Araba Telefonoa: 945 017 300 Helbide elektronikoa: ejie@ejie.eus Datuak Babesteko Ordezkariarekin harremana izateko, idatzi helbide honetara: dpd@ejie.eus</p> |
| Helburua | <p>Zertarako tratatzen ditugu zure datuak?</p> <p>EJIEk antolatzen dituen prestakuntza-jardueretan izandako parte-hartzearen erregistroa, kudeaketa, kontrola eta jarraipena.</p> <p>Prestakuntza-saioak grabatzea, horiek erabiltzeko eta barne-zabalkundea egiteko.</p> |
| Legitimazioa | <p>Zerk legitimatzen du zure datuak tratatzea?</p> <p>DBEO: 6.1.b) EJIEren eta prestakuntza-zerbitzuen enpresa hornitzailearen arteko kontratua gauzatzeko beharrezko tratamendua.</p> |
| Hartzaileak | <p>Zein hartzaileri jakinaraziko dizkiogu zure datuak?</p> <p>Identifikazio-datu pertsonalak, hala badagokio, prestakuntzarako laguntzak kudeatzen dituzten erakundeei jakinaraziko zaizkie.</p> |
| Datuak gordetzea | <p>Zenbat denboran gordeko ditugu zure datuak?</p> <p>Tratamendu honen esparruan tratatzen diren datu pertsonalak 10 urtez gordeko dira.</p> |
| Eskubideak | <p>Zein eskubide dituzu guri datuak eman ostean?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Edozein pertsonak dauka eskubidea ziur jakiteko ea EJIE SA berari buruzko datu pertsonalak tratatzen ari den. • Pertsona interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, bai eta zehatzak ez diren datuak zuzen daitezela eskatzeko ere, edo, hala badagokio, datuak ezabatu daitezela eskatzeko, besteak beste datu horiek dagoeneko ez badira beharrezkoak jaso ziren helburuetarako. • Kasu jakin batzuetan, pertsona interesdunek aukera dute beren datuen tratamendua muga dadila eskatzeko. Mugatzea eskatuz gero, erreklamazioak egin edo erreklamazioen aurrean babesteko soilik gordeko ditugu. |

| | |
|--------------------|--|
| | <ul style="list-style-type: none"> • Kasu jakin batzuetan, eta pertsona interesdunen egoera bereziren batekin lotutako arrazoien ondorioz, interesdunek aukeran izango dute beren datuak tratatzerik ez dutela nahi adierazteko. Hala eginez gero, EJIE S.A.-k datu horiek tratatzeari utziko dio, nahitaezko legezko arrazoia ez badaude edo erreklamazioak gauzatu edo erreklamazioen aurrean defendatzeko ez bada. • Interesdunek EJIE SArI eman dizkioten datuak beste norabait eramateko moduan jartzeko eskatzerik badute, edonork erabiltzeko moduko eta mekanikoki irakurtzeko moduko formatu egituratu batean, haiek deskargatzeko edo EJIE SAtik beste erakunde batera bidaltzeko. • Eskubideak gauzatzeko, mezua bidali beharko dute lopd-ejie@ejie.eus honako helbide honetara, NANaren kopia bat edo nortasuna egiaztatzeko beste agiri baliokideren bat ere gehituta. <p>Gainera, eskubideak behar bezala baliatzerik ez baduzu izan, aukera izango duzu erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Agentzian, batik bat, www.aepd.es orrialdean adierazitako posta-helbidean edo helbide elektronikoan.</p> |
| SEGURTASUNA | <ul style="list-style-type: none"> • Datuak konfidentziasunez tratatuko ditugu, eta antolaketa-neurri tekniko egokiak baliatuko ditugu datuok tratatzeko, ez daitezela aldatu, galdu edo beste nolabait tratatu eta inork ez ditzan baimenik gabe eskuratu. |